



Eskola Kirola Programa Programa de Deporte Escolar

Nº 7
ZBK



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



www.gipuzkoa.net/kirolak



III. KIROLA BALIOAK TRANSMITITZEKO BIDEA

2. zatia

III. EL DEPORTE COMO MEDIO DE TRANSMISIÓN DE VALORES 2ª parte

“Kirolaren balioak transmititzeko Bidea” ataleko 2.zatian Antoni Petrus, kirol munduko ikerlariaren eskutik, kirola eta balioak uztartzen jarraituko dugu. Oraingo honetan Administrazioa, Ikastetxeak, Federazioak eta Kirol Elkarteak funtzioak aztertuko ditu. Kirolaren kode etikoa, ekintza moralak kirolan duen lekua... arituko gara.



Antoni Petrus i Rotger pedagogian doktorea.

■ Zure ustez erakundeek eta ikastetxeek tarteko izan behar dute Eskola Kiroleko entrenatzaileak eta prestatzaileak trebatzeko eginkizunean. Uste duzu kezka hori ez dagoela?

Nire ustez, eskola kirolak barne hartzen dituen kirol jarduerak ikastetxe barruan nahiz kanpoan egiten direnak dira, eta eskola kirolak heziketa sisteman integratuta egon behar du. Bestela esanda: ikastetxeen ardura da zein helburu dituzten zehaztea, eta ikastetxeen erantzukizuneko da eskola kirolean eragina daukan gutzia.

Baita ere, ni nola sinetsita nagoen edozein jarduerak “eskola” izenlaguna baldin badauka, heziketa eta prestakuntzako helburuei erantzun behar diela, bada, ez dirudi oso koherentea erkidego askotan eskola kiroleko monitorea edo entrenatzaileek bere esatea inolako prestakuntza berezirik ez dutela. Ez al dugu eskatzen irakasleek edo maisu-maistrek titulua eduki dezaten, beren gaitasuna gizartearen aurrean egiatzatzen? Bada, berdin eskatu beharko genuke, eskola kirola ere, hain jarduera garrantzitsua izanik, behar bezala prestatutako pertsonen ardurapean egon dadin.

Gaur egun, eskola kiroleko profesional batek heziketan duen erantzukizuna beste edozein irakasle eskolako beste gai batzuetan duena bezain garrantzitsua da (edo garrantzitsuagoa). Nire iritziz, ikastetxeek eta heziketa fisikoko irakasleek izan behar dute eskola kirolaren erantzule. Eta ez da logikoa ordutegi edo administrazio arazoengatik eskola kirola prestatzaile eta entrenatzaileen esku egotea, ezin baitute beti egiaztatu pedagogia eta kirol prestakuntza egokia dutenik.

■ Behin baino gehiagotan esan duzu eskola kirolaren diseinu egoki batek oinarritzat hartu behar duela elkarlanean aritzea lau alderdi hauek: Administrazioa, ikastetxeak, federazioak, eta kirol elkarteak. Nola antolatuko litzateke egiteko hori?

Halaxe da, bai. Nire ustez, eskola kirolaren diseinu egoki bat elkarlanean egin behar dute administrazioak, ikastetxeak, federazioak, eta kirol elkarteak. Administrazioak bitartekoak jartzeko erantzukizuna dauka, eskola kirolak beharrezko dituen eta bere burua definitzen duten baldintzak eduki ditzan.

Baina administrazioak, gainera, badauka beste erantzukizun garrantzitsu bat: eragile jakin batzuk ugalduta daitezkeen eragozteak. Izan ere, badaude eragile batzuk, gure eskola-umeen kirol hastapenaz txiki-txikitatutako arduratu nahi dutenak, eta inolako lotsarik gabe diotenak goiz “espezializatzen” badira kirolari hobeak eta lehiakorrak izango direla (nahiz eta horretarako entrenamendu goiztiarrak egin beharrean egon, eskola ume horiek atleta gisa duten etorkizunaren kaltean ere joan daitezkeen entrenamenduak, hain zuzen ere).

Ez du zentzurik eskola eta kirol elkarteak askotan elkarren aurka egotea beren helburuetan bat ez etortzeagatik. Helburu horiek elkarrengandik urrun daudenez, begi bistakoa da galdera: zeinek ditu argudio hobeak eta sendoagoak? Zentzuak esaten digu eskola kirolaren diseinuak zuzenean eskolaren esku egon behar duela. Nahi baduzu, kirol elkarteekin eta federazioekin elkarlanean, baina erantzukizuna ikastetxearena da.

Egia, ordea, bestelakoa da: Espainiako erkidego gehienetan eskola kirola ez da zuzenean ikastetxeen erantzukizuna, eta gainera, ez dute beti hartzen heziketa jardueratzat. Eta egia beste hau da: eskola umeak ez dira Estatuarenak, ezta federazio edo kirol elkartearenak ere, ezta familiarenak ere, zentzu hertsian: beren etorkizunarenak dira, eta etorkizun hori inork ezin du arriskuan jarri gaizki ulertutako eskola kirol batengatik.

Asko gara kirol eskolaren eta kirol federatuaren arteko dikotomia ezin justifikatuzko hori amaituta ikusi nahi genukeenok. Lehenengo eskura eduki behar dute eskola adinean dauden haur guztiak. Bigarrena eskura eduki behar dute kirol gaitasun handiagoak nabarmen dituztenek, hala nahi badute, behintzat, haurrek berek eta gurasoek. Heziketa balialde bat ezin dugu bihurtu, dudazko interesengatik, arazo pedagogiko bat gehiago. Uste dut eskola kirolean diseinu desegokia baldin badaukagu, horren erantzukizuna denona dela. Ezin zaie profesional edo federazio batzuei bakarrik egotzi.

■ Eskola kirola dela-eta, zu aritu zara begiratzen estatuko erkidego askotan zein lege, zein diseinu eta zein egoera dauden. Horren ondorioz, ezer egiaztatzeko moduan zaude?

Harritzekoa da autonomia erkidego gehienetan eskola adinean daudenen jarduera fisikoa eta kirol jarduera ez izatea heziketa zerbitzuen erantzukizun eta eskumenekoak. Ikastetxeak ikasleen heziketa osoaren erantzule naturalak izaki, ez du zentzurik kirola, heziketan hainbesteko eragina daukan jarduera bat, Zentroaren Heziketa Proiektutik kanpo uzteak.

Eskola kirolaren helburuek ez dute egon behar federazioen eta kirol elkarten interesen mende. Eta ikasle batzuek kirolean aritzeko baldintza bereziak nabarmen eduki arren, beti aldarrikatuko dugu haur guztiak heziketa egokia jasotzeko duten eskubidea errespetatu dadin, bestelako kirol interes batek herritar gisa eta kirolari gisa duten etorkizuna arriskuan jartzeko aukerarik izan gabe.

Kezkatzekoa da, bestalde, heziketa fisikoko irakasleek berek ere aho bateko adostasunik ez edukitzea arazo horren aurrean egin behar dutenaz, eta are kezkarriagoa da gauza nabaria denean egoera ugartan ez direla errespetatzen edota garbi bortxatzen direla kirolean aritzen diren eskola umeen eskubideak. Batzuetan, baita esplotatuak ere izaten dira haurrak kirolean, edo abusuak jasaten dituzte gaizki diseinatutako eskola kirol baten eskutik.

■ Hitz egin dezagun ekintza moralak kirolean duen lekua, porrotaren frustrazioaz, zuk inoiz aipatu duzun “Txapelduna ez izateko eskubideaz”. zer eginkizun bete beharko luke kode etikoak eskola kiroleko jarduerak aurrera eramateko orduan?

Kirolean aritzea eskubide konstituzional bat baldin bada; kirola heziketa-jardura bat gehiago baldin bada; orduan, nola justifikatu, ikasle bat, ez oso lehiakorra, ez oso trebea, edo gizona, kirolean aritzeko orduan, behartuta egotea bere lagun talde naturala uztera, eta baztertuta izatea? Argudioa ezin izan daiteke, jakina, lehiakortasuna, irabazi beharra.

Kirolaren kode etikoak eskubide hauek defendatzera behartzen gaitu: eskola adinean dauden haur guztiak berdin aritean lehiatzeko eskubidea, duintasunez tratatuak izateko eskubidea, eta kirolean entrenatzaile eta profesional gaituek heziak izateko eskubidea. Eskola umeak, azken batean, kirolean aritzeko eta txapeldun ez izateko eskubidea dauka. Eskola kirolaren benetako garaipena eskubide horiek errespetatzen datza gaur egun.

Eskola kirola heziketa jardura bat da; beraz, kode etiko bati erantzun behar dio, matematika, marrazketa edo musika ikasketak bezalaxe. Behar-beharrezkoa da, beste alde batetik, kirol arduradunak jabeaztea kirolaren logikak bai irabazlea bai galtzailea, biak sortzen dituela. Eskola kirolean kirolaren funtsa ez da irabaztea, haur jolasetan ere ez den bezalaxe. Edozein haurrek daki garrantzitsuagoa dela jolastea irabaztea baino. Irabaztea ez da kirolari zentzua ematen diona, eta irabazteko engainatzea ere ezin da justifikatu.

Irabaztea gauza garrantzitsua da, baina baita ere da garrantzitsua eskola kiroleko gure prestatzaile eta entrenatzaileek galtzearen pedagogia egitea. Milaka gazte kirolari gertatzen da garaituta, astero egiten duten kirolaren logika horren ondorioz. Gogora dezagun gehiago direla galtzaileak irabazleak baino. Eta ez dezagun ahaztu galtzeak ere hezten duela, seguraski irabazteak baino gehiago, garaipena lehia itsuaren eskutik baldin badator, behintzat, edo haur guztiak kirola egiteko duten eskubidea ez errespetatzearen eskutik, nahiz eta eskubide hori erabilita bere taldeak irabazi ez. Porrota berreskuratu behar dugu, gauza onuragarria den heinean, ez gauza etsigarria. Porrota lagungarri da frustrazioaren aurrean erresistentzia maila handitzeak, nor bere burua hobetzeko, nor bere mugak onartzeko, eta aurkariaren balioak aitortzeko. Kiroltasunez gaitzea, frustraziorik eta indarkeriarik gabe gaitzea, irabaztea bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da.